



V Congreso Internacional de Estudios del Desarrollo
Desafíos al desarrollo: procesos de cambio hacia la justicia global

Garapenari buruzko Ikasketen V. Nazioarteko Biltzarra
Garapenari erronkak: eraldaketa prozesuak justizia globalerantz

Bilbao, 27-29 mayo 2020 - Bilbo, 2020, maiatzak 27-29

REEDES
RED ESPAÑOLA DE ESTUDIOS DEL DESARROLLO



Iberoamerikaren garapen iraunkorrari buruzko ikerketa

SEGIB-AECID II. Saria

Iberoamerikako Idazkaritza Nagusiak (SEGIB, gaztelaniaz) eta Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren Agentziak (AECID, gaztelaniaz) Iberoamerikako Garapen Iraunkorrari buruzko Ikerketa SEGIB-AECID II. Sarirako deialdia egin dute, Iberoamerikako 2030 Agendaren esparruan ikerketa sustatu eta zabaltzeko asmoarekin. Sari hau Euskal Herriko Unibertsitateko Hegoa Institutuak eta Garapenaren Ikasketen Espainar Sareak antolatutako Garapenari buruzko Ikasketen V. Nazioarteko Biltzarraren barnean (V. GINB) esleituko da.

Sariaren oinarriak:

1. V. GINB-era (Bilbo, 2020ko maiatzak 27-29) aurkezten diren komunikazioen artean esleituko dira bi sari: ikerketa onenari saria eta akzesita.
2. Lehenengo Saria 700€koa izango da, akzesita, berriz, 300 eurokoa. Saritutako bi lanak SEGIB-AECIDek eta REEDESek eta Hegoak emandako diploma bidez aitortuko dira (V. GINBaren erakunde antolatzaile gisa), eta Garapen Ikasketen Aldizkari Iberoamerikarrean (RIED) argitaratzeko proposatuko dira, saria aipatuta.
3. Sarirako aurkezten diren lanak eta ikerlariak jarraian aipatzen diren baldintzak bete beharko dituzte:
 - a. Aurkeztutako lanak V. GINBean parte hartzeko komunikazioen baldintza berberak beteko ditu
 - b. Lanen ardatza 2030 Agenda edota honen interpretazioa, aplikazioa edo Iberoamerikar esparruan azterketa izango da. Positiboki baloratuko da genero-ikuspegia behar bezala txertatzea, bai eta 5. GIHarekin (Generoen arteko berdintasuna lortzea eta emakume eta neska guztiak ahalduntzea) lotutako gaiak azterketan sartzea ere.
 - c. Deialdian parte hartzeko nahia espresuki adierazi, eta, horretarako, txostenaren lehen orrian honako aipamen hau sartu: "Iberoamerikako



Secretaría General
Iberoamericana
Secretaria-Geral
Ibero-Americana





V Congreso Internacional de Estudios del Desarrollo
Desafíos al desarrollo: procesos de cambio hacia la justicia global

Garapenari buruzko Ikasketen V. Nazioarteko Biltzarra
Garapenari erronkak: eraldaketa prozesuak justizia globalerantz

Bilbao, 27-29 mayo 2020 - Bilbo, 2020, maiatzak 27-29

REEDES
RED ESPAÑOLA DE ESTUDIOS DEL DESARROLLO



- Garapen Iraunkorrari buruzko Ikerketarako SEGIB-AECID II. Sarirako hautagaia".
- d. V. GINBeko Batzorde Zientifikoaren oniritzia.
 - e. Ez dago baldintza espezifikorik autoreen kopuruari, jatorriari edota instituzioen atxikipenari buruz.
 - f. Gutxienez, lana sinatzen duten autoreetako bat inskribatuta izango da V GINBean eta bertan lana aurkeztuko du.
4. Lau kidek osatutako epaimahai paritario batek ebaluatuko ditu aurkeztutako lanak, ebaluazio itsu batean. Epaimahaia jarraian adierazten den moduan osatuko da: Epaimahaiburua SEGIBek eta AECIDek izendatutako ordezkaria izango da, V. GINBaren Batzorde Antolatzailearen lehendakariak izendatutako ordezkari bat, REEDESeko Zuzendaritza Batzordeko ordezkari bat (Idazkaria izango da) eta (RIED) Garapen Ikasketen Aldizkari Iberoamerikarreko zuzendarietako bat.
 5. Epaimahaiak saria eman gabe utzi ahal izango du, aurkeztutako lanek beharrezko merezimenduak betetzen ez dituztela uste badu. Era berean, sariaren zenbatekoa (modalitate nagusian eta akzesitean) *ex aequo* aipatuz zatitu ahal izango du. Kasu horretan, zuzkidura ekonomikoa bitan zatituko da.
 6. Epaimahaiaren erabakia apelaezina izango da.
 7. Sariak banku-transferentzia bidez ordainduko dira.
 8. Deialdi honetan parte hartzeak deialdiaren oinarri guztiak onartzea dakar.



Secretaría General
Iberoamericana

Secretaria-Geral
Ibero-Americana

